

## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



### Uribarriko *Santamosua*

**E**tzittuan urte asko harrapo, baiña iraun eben denporan **oso estimaua** izan zan, umien artian batez be. Saiatu gara noiz eta zeñien aginduz jaso zan jakitten, baiña eztogu aztarran garbirik atara. Dirudienez, **XX. gizaldiko lehenengo hamarkadatan modutu euen** Uribarriko **Santamosua**, Arantzazurako bide ertzian, eskumakaldian. Izen kurioso hori emuten otsain Aloña azpiko auzotarrak **arrautza itxurako erreka-harriz egindako itturrixari**. Berrogei urtetik gora dakotzuen gehixenok gogoratu zarai irudi horrekin, seguru asko, eta bere inguruan jolas egin be bai akaso.

Txopekua baiño gorago, **Goittikua baserrixaren onduan** eguen. Pare-parian, kamiñuaz bestaldian, **itturri normalago bat** eukan, oraindiok be ura darixola jarraiketan dauena. Errepidiaren azpittik pasaitten diran itturri horren ur sobrantiak aprobetxaitten zittuan beste itturri artistiko horrek, ur-txorrotadia **Santamosuaren** agotik botaten ebela. Itturburua goratxuago ei dago. Aloña mendikatiaren barruan pillaketan dan **geruza freatiko ikaragarrittik, ura erruz kanporaketan da** malda horreittako hainbat lekutan: adibidez, **Troska** eta **Antzuabarren** Uribarrin, eta **Ubao** nahiz **Urdandietan** Berezao eta Murgixan.

Argazkixan ezkerretan agiri dan baserrixa **Egikua** da; eskuman, berriz, **Txopekoko bolalekua** nahiz sagardaua, bedarra eta abar gordeteko **txabola-bodega modukua** ikusten dira. Kilometro batzuk beherago, futbol-kanpua baiño goratxuago, Uribarriko honen garaikua izango da, ziurrenik, **Azkoagaineko itturrixa be**. Arrautza antzeko erreka-harriz egindakua da; Arantzazuko Amaren irudixa eta **Aloñako iturria** inskripziñua dako erdixan eta bi jarleku luze ezker-eskumatan. Zutik eta osorik egon arren, **untzak eta narrak jabetu** dira itturrixan eta aldamenetan. Nori dagokixo inguru hori garbiketia eta txukunketia?

Gipuzkuako **diputaziñuak**, biharbada, jasotako **Santamosua** erakunde berak botako euen 1980ko hamarkadan, Arantzazurako kamiñua zabalketako obrak burutu ziranian, nunbait. Horrenbestez, **60 urte pasa** egongo zan Uribarri auzuan irudi-itturri berezi hori.

Fotografixia Juan Tijera gaztiak atara eben 1968 aldera; orduan Uribarriko Paterretxen bizi zan. Guri Mila Igartuak eskuratu dosku eta berari zor xaugu argibiderik gehixenak. Pedro Igartua, Mikel Alberdi, Kepa Elortza eta Tomas Igartuak be lagundu doskue. Milla esker danoiri!